

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 2/2016 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, martxoaren 15ekoa, aldatzen duena irailaren 30eko 12/1997 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, aseguru primen gaineko zerga arautu zuena

Uztailaren 14ko 20/2015 Legeak, entitate aseguratzailer eta berraseguratzailerentzako antolaketa, gainbegiratze eta kaudimenarenak, aseguru primen gaineko zergatik kendu zituen Espainiatik kanpo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kide batean helbideratutako entitate aseguratzailerak, zerbitzuak egiteko araubidean jarduten badute, zerga ondorioetarako Espainian ordezkari bat izendatzeko betebeharraren aipamenak. Hori guztia Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren epai bat dela eta, betebeharrak hori Europako araudiaren aurkakoa dela ebatzi baitu.

Indarrean den Ekonomia Itunak 32. artikuluan xedatutakoaren arabera, aseguru primen gaineko zerga itundutako zerga da, eta, funtsean, Estatuak unean-unean ezarritako dituen edukizko eta formazko arau berberak arautuko dute. Beraz, egokia da Arabako araudia aldatzea horretara egokitzea.

Azterturik Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena.

Horren ondorioz, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur egin duen bileran gaia aztertu ondoren, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, 8. artikuluan, eta abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearenak, Foru Aldundiari ematen dizkion ahalmenez baliatuta, presako arrazoiak direla eta, honako hau

XEDATZEN DUT

Bakarra. Aldatzea irailaren 30eko Zerga Premiazko Araugintzako 12/1997 Dekretua, aseguru primen gaineko zerga arautzen duena.

Bat. Kendu egingo da irailaren 30eko Zerga Premiazko Araugintzako 12/1997 Dekretuaren 9. artikulua 2. idatz zatia.

Bi. Kendu egingo da irailaren 30eko Zerga Premiazko Araugintzako 12/1997 Dekretuaren, aseguru primen gaineko zerga arautzen duenaren, 13. artikulua.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean sartzea.

Xedapen orokor hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Bigarrena. Gaitzea.

Baimena ematen zaio Arabako Foru Aldundiari xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Hirugarrena. Batzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu hau Arabako Batzar Nagusiei aurkeztuko zaie, indarrean dagoen arautegian ezarritakoaren arabera berretsi edo baliogabetu dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko martxoaren 15a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ

Jarduneko zuzendaria

IÑAKI ALDEKOGARAI LABAKA